

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Garmendia Arrieta

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1922-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako Posentarri baserrian jaioa, Goiburu auzoan. Urnietakoak zituen gurasoak. 10 senidetan zortzigarrena zen, eta neskame ibili zen ume-umetatik: 12 urterekin Hernanira bidali zuten. 14rekin, Donostiara umezain; gerra hasi zenean, baserrira itzuli zen, eta 18rekin berriro joan zen Donostiara, beste etxe batera zerbitzatzera. Donostian bizi da orduetik. Uranga tabernan lanean ibili zen, ezkondu aurretik. Gero, fruta eta oilasko postua izan zuen 15 urtean, Bretxako azokan. Londres hotelean ere jardun zuen lanean, plantxatzen eta josten.

Zintak

URN-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-12-09
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane - Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Hernanin neskame 12 urte zituela

- **Erref:** URN-001/004
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Gaztetatik neskame joan behar izan zuten senideek. 12 urterekin Hernanira joan zen bera neskame, bere ahizpa lanean zebilen etxera. Familia hark Donostian denda bat zeukan; behin Juanita dendara bidali zuten eta ez zen galdu bidean. Neskame zegoela plantxa egiten eta frantsesez hitz egiten erakusten zion etxeakoandrearen ahizpak. Gerra etorri zenean, ordean, etxe hura utzi egin behar izan zuten, nagusiak Frantziara joan baitziren.</p>

2. Ume-zaintzaile Donostian, euskaraz egin ezinik

- **Erref:** URN-001/005
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Neskameak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>14 urterekin Donostiara joan zen lanera, beste ahizpa baten etxera, etxe hartako jaioberria zaintzera. Guardiek ez zieten uzten euskaraz hitz egiten lagunen artean, nahiz eta Juanitak erdaraz jakin ez. Azkenean, nola edo hala, ikasi zuen erdaraz egiten.</p>

3. Ume-zaintzaile ibili zeneko eginkizunak

- **Erref:** URN-001/006
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:10:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Ume txikiak zaintzeko, lehen ere bazeuden txupeteak, baina fardelak eskuz garbitzen zituzten, berriro erabili ahal izateko. Bere lana umea zaintzea eta haren arropa garbitzea zen, baina zeregin gehiago ere bazituen.</p>

4. Anaiaren azken nahia

- **Erref:** URN-001/007
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Ume-zaintzaile zegoela, Urnietara joaten ziren uda pasatzera. Han zegoela, anaiak gerrara joan behar izan zuen eta joan aurretik bazekien hil egingo zela. Hiltzen zenean, neskame-lana utzi eta etxera itzultzeko eskatu zion Juanitari. Hala gertatu zen azkenean.</p>

5. Eskolan nola ikasten zuten

- **Erref:** URN-001/008
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:12:54. **Bukatu:** 00:16:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Eskolara joatea ez zitzaion asko gustatzen; beldurra ematen zion arbelera ateratzeak. Urnietako eskolara joan zen. Maistra bat izan zuen, eta hilzorian zegoela, Juanita egon zen hura zaintzen. Maistra jatorra zen eta ondo irakasten zuen. Neskak eta mutilak denak batera ibiltzen ziren eskolan. Dotrina oso ondo ikasi behar izaten zuten. Katona erabiltzen zuten ikasteko. Arbelean idazteko klarion zuria erabiltzen zuten. Euskaraz ikasten zuten. Maistra euskalduna zen.</p>

6. Urnietan fusilatutako mutilak

- **Erref:** URN-001/009
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:16:56. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Urnietan izandako apaizei buruz hitz egiten du. Gerran herrian mutil batzuk fusilatu zituzten eta apaiz batek haietako bost konfesatu zituen.</p>

Transkripzioa

-Eta apaiza zein zan orduan?

-Orduan Don Juan. Don Juan Aierbe. Bai, ona zan apaiza, oso ona zan. Erretoria. Gero beste Urnitan eondu zien beste hiru apaiza ´re, e? Don Jose, Don Eustakio... Don Eustakio hemen, kartzelan, afusilatzea eaman zittuenak konfesatu zittun bost. Bat bere ezauna, bere parientia, gure auzoko baserri batekoa. Ta badakizu zergatik zun harrek? PNV-ntzako botuak biltzen ibiltzen zalako. Detenittu zuen ta Ondarretako kartzelan eondu zan, ta ya azkeneako afusilatu in zittuen. Bai. Ta gero apaiz harrek konfesatu zittun bost, afusilatu baiño lehen.

-Eta Urnietako asko afusilatu zituzten?

-Urnietako bakarra. Goatzen naiz ni Urnietan, baiño Urnietan jende gaixtua ´re bazeon e? Rekete bat bazan gaixtua. Ni Urnitako afusilatua ez naiz ni besteik goatzen.

7. Mezara goizean goiz

- **Erref:** URN-001/011
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:18:13. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Igandero eta jaietan joaten ziren mezara. Goizean goiz kongregazioko mezara joaten ziren. Ordu horretan oraindik ilun zegoenez, argia izateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Biderako alpargatak erabiltzen zituzten, zapata onak elizarako.</p>

8. Donostian bederatziurren guztiak entzutera

- **Erref:** URN-001/012
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Donostian zirela, bederatziurren guztiak entzuten zituzten. Bederatziurrenak goizeko zazpitan izaten ziren eta hainbat elizatarak joaten ziren haiek entzutera.</p>

9. Donostian neskame

- **Erref:** URN-001/014
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:21:59. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>18 urte zituela, neskame-lanetan hasi zen eta han egon zen lau urte eta erdi; hilean 50 pezeta irabazten zituen. Etxe hartako eguneroko bizimoduaz hitz egiten du.</p>

10. Bar Urangan lanean zebilela, Oñatiko mutil tuberkulosoak zaintzen

- **Erref:** URN-001/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Neskame izateari utzi eta "Bar Uranga" tabernara joan zen lanera. Han

Oñatiko mutil bat zaindu zuen, tuberkulosia zuena; bera ez zen kutsatu. Tabernan zer lan egiten zituen azaltzen du. Soineko beltza eta mantal zuria eramaten zuten.</p>

11. Lurra garbitzeko argizaria eta alanbrea

- **Erref:** URN-001/017
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:25:32. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Etxe partikularrean zebilela, lurra garbitzeko argizaria ematen zuen. Eskuila, alanbrea eta bailleta ere erabiltzen zituen, besteak beste.</p>

12. Senargaia ezagutu eta ezkondu zirenekoa

- **Erref:** URN-001/018
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:27:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Lanean diru pixka bat egin ondoren, ezkondu egin zen. Senargaia Beizamakoa zen, gudaria izandakoa eta lana bilatzeko arazoak izan zituen horregatik.</p>

13. Erromeriara igandetean autobusez edo tranbiaz

- **Erref:** URN-001/019
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:27:21. **Bukatu:** 00:28:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Erromeriara igandetean bakarrik joaten ziren. Asteazkenean ez zieten uzten etxetik irteten. Dantzara arratsaldean joaten ziren eta iluntzerako etxean egon behar izaten zuten. Erromeriara autobusez edo tranbiaz joaten ziren.</p>

14. Bretxako postuan fruta saltzeko egin beharrekoak

- **Erref:** URN-001/022
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:30:08. **Bukatu:** 00:32:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Ezkondu eta berehala, postua jarri zuen Bretxako plazan koinatu-koinatarekin batera. Jeneroa karroarekin ekartzen zuten Atotxatik Bretxara. Karro handia izaten zen, fruta asko ekarri behar izaten baitzuten Hotel Londresekoei saltzeko.</p>

15. Postuan oilaskoak eta arrautzak saltzeko komeriak

- **Erref:** URN-001/023
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Bretxako postuan, frutaz gain oilaskoa ere saltzen zuten. Oilaskoak ferietatik ekartzen zituzten. Arrautza pila bat erosi behar izaten zituen ferietan, Hotel Londresekoek eskatzen baitzizkieten. Arrautzekin gora eta behera, gaizki pasatzen zuen. Arrautzak bidean ez apurtzeko, saskian lastoa jartzen zuen.</p>

16. Hotel Londres bezero garrantzitsua

- **Erref:** URN-001/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:34:44. **Bukatu:** 00:36:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Hotel Londres bezero zuten. Haien eskariak handiak izaten ziren. Oilaskoak hiltzen ikasi behar izan zuen; sukaldean eta postuaren barruan hiltzen eta lumatzen zituen.</p>

17. Oilaskoak handik eta hemendik lortzen

- **Erref:** URN-001/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:36:23. **Bukatu:** 00:38:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Oilaskoak handik eta hemendik erosten zituzten posturako. Oilaskoak saski handietan sartzen zituzten hankak lotuta zituztela, horrela ondo garraiatzen zituzten. Gehienbat Eguberrietan saltzen zituzten oilaskoak. Gaur egungo oilaskoak oso handiak iruditzen zaizkio.</p>

Transkripzioa

-Eta batzutan bazeuden etortzen ziranak oilaskuekin baserrietatik hona saltzera...

-Donostira bai.

-Eta zuk haiei ez zenien erosten?

-Bai, bai, batzutan bai, bai.

-Errenterira're, pentsa zazu gu Errentira're bi koiñatak junak gaude oilaskuak erostea. Igandetan itten zan feriya Errentein, eta guk igandetan itxiya nola izaten gendun ba igandetan oillaskuak erostea juten giñan. Asi ke...

-Eta han oilaskuak bati bi beste bati beste bi eta hola...

-Bai, bai, bilduta.

-Ez zuten asko izango.

-Hoi da, batzuk pare bat igual, bestiak bi igual, bestiak hiru igual. Bai, bizitza goorra tokatu zaigu.

-Eta gero oilaskuak bizirik nola eramaten dira hamar oilasko?

-Zesto haunditan. Hanketan lotu ta zestuetan. Ondo ibiltzen dia.

-Eta zenbat oilasko saltzen zenituzten?

-Eguarritan asko. Gaiñeakuan asko-asko ez gendun saltzen. Klaro, fruteiya ta polleria zan eta. Baiño eguarritan asko. Askok saltzen gendun eguarritan. Jesus!, baiño ez oin bezelako oillasko haundi hoik. Nik hoik ezin ditut jan. Bueno, ez det ezer asko jaten baiño hoik gutxiyo. Zeatik guk saltzen gendun oillaskua "de kilo, docientos, trecientos"; hoi izaten da oillaskua goxua. Ta nik beste oilasko haundi hauek ezin dittut jan. Nee ahizpak'e bialtzen ditu oillaskuak baiño haundiyak, oillarrak ematen due. Ez, ez, nik ezin dittut jan holako haundiyak

18. Gaixo egon eta zergatik jakin ezin

- **Erref:** URN-001/026
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:40:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>15 urtean izan zuten postua Bretxan, Juanita gaixotu zen arte. Medikuei kosta egin zitzaien jakitea zer gaixotasun zeukan, baina azkenean lortu zuten asmatzea. Operatu egin behar izan zuten, 10 hilabete egon zen ingresatuta eta ondo osatu zen.</p>

19. Gaixotasunetik osatutakoan, lentzerian lanean

- **Erref:** URN-001/028
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:41:28. **Bukatu:** 00:44:31

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Ingresatuta egon ostean, Bretxako postua utzi zuen, kargarik ezin baitzuen eraman. Hala ere, beste era batzuetako lan-eskaintzak izan zituen. Horrela, lentzerian hasi zen lanean. 18 urte egon zen Hotel Londresen lanean. Lentzerian zer lan zuen azaltzen du.</p>

20. Senarraren lanak eta gudari izan zeneko gorabeherak

- **Erref:** URN-001/030
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:47:32. **Bukatu:** 00:49:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Senarra tranbiako gidaria zen. Gerora, kamioiarekin hasi zen lanean, tranbian jendaurrean lan egin behar baitzuen. Gudari izandakoa zen, eta fusilatzetik ozta-ozta salbatutakoa. Azkenean, SIGMAko inspektore izan zen.</p>

Transkripzioa

-Zure senarrak tranbian egiten zuen lana. Zer lan egiten zuen?
 -Kondutor. Eta geo ibili zan kamioiak. Bai, nee gizonak ez zun baliyo tranbieten "frente al público", ezin zun, zeatik bakizu ordun eozer gauza aitzen zan eta esaten zuen eta gudariya nola izandu zan, Castro Udrialesen harrapatu zittuen prisionero, eta anaiyagatik libratu zan zeatik anaiya zun oso asko zekiena, harrek Francokin uste det hitz egiten zula, frailia. Ta afusilatzeko bildurrakin anaiyak atea zun. Baiño ez zan oso kontentu etorri hua, e, zeatik bee lagunak danak han utzi kartzelan ta bea atea ta, anaiyakin izandu zun frentia, e. Aber zergatik in zun lana hua handik ateratzeko, lagun danak hantxe utzi bihar izandu zittula. Ta hola geo ibili zan, azkenian ibilli zan kamioiak. Edadea. Ta geo kamioia zeatu eta izandu zun proporziyua Máquinas Sigma, hor inspektore jarri zuen. Ta hortikan erretiratu zan.
 -Hori nun zegon?
 -En la calle Garibay. Eta Elgoibarren do etxia, zan, oin kendua dola uste det, e. Oin ez det uste donik. "Máquinas Sigma no hay ahora".
 -Josteko makinak?
 -Bai, josteko makinak. Eta halakoxe bizimoua.

21. Gerran erreketek inguruan eta gazte ugari hil

- **Erref:** URN-001/031
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:49:05. **Bukatu:** 00:51:12

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, baserrian zegoen. Tropak baserritik gertu zeuden eta tiroak entzuten zituzten. Erreketeek hainbat gazte hil zituzten Juanitaren baserri inguruan. Gotzaina ere etorri zitzaien etxera.</p>

22. Gerran familia sakabanatuta

- **Erref:** URN-001/032
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:51:12. **Bukatu:** 00:52:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

<p>Anaia zaharrena gerran hil zen. Oso mutil ona zen hura. Familiako beste gehienak baserrian elkartu ziren gerra garaian, baina laster sakabanatu ziren. Ahizpak espoletak egiteko fabrika aritu ziren lanean Andoainen gerra garaian.</p>

23. Ardiekin lanean bertsoak kantatzen

- **Erref:** URN-001/034
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:55:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Baserriko lanetan ibilitakoa da: ardiak jezten, ardiak zaintzen... Ardiekin bertsoak kantatzen ibiltzen zen beti. Hotza ondo eramaten zuen, baina kalte handia egiten zion. Ardiekin egoteko, zer janari eramaten zuen aipatzen du.</p>

Transkripzioa

-Eta baserriko lanetan eta ibiltzen zinen?

-A bai, nik baserriko lanetan ´e badakit. Ardiak ´e jeitzen badakit, e? Nik ardiak zeatu, bildu ta esnia kendu ta gazta itten zuen attak eta amak.

-A bai?

-Bai.

-Etixerako ala saltzeko?

-Etxeako. Ez, ez, saltzeko ez, etxeako. Bai. Ardiak ´e gutxi, ez giñun asko ta. Ardi asko bihar da gazta saltzeko itteko.

-Eta ardi-zain ibiltzen ziñan?

-Bai, uiii ardi-zain? Nik aiña berso kantatzen ardikin...! Baiña ni beti kantari! Nik eztakit zenbat berso ikasten nittun, ta danak banakizkin! Oain danak

ahaztu zaizkit, e? Baiña zenbat kantatzen nun nik ardikin! Ta neguan, neguan itten nuen zeatikan, gure etxen, klaro, mendiya zan, ta elurra, ta ardi gaixuak behero elurrik ez ta harea eman behar zian, jatea. Ta ni nere ardik hartu ta juten nitzan ardik, ardik jatea. Eta gero bueltan, egurra eoten zan han oso ona, sue itteko, otia, ote egurra. Ta sorta ein, zeakin, egurrakin, hue burun hartu, ta nere ardikin juten nitzan etxea, illuntzian, pentsa zazu! Ni ez, ez... Gaiñea, hotzakin? Hotzakin oso gogorra nintzan, gaiñea, e?

-Bai?

-Bai, nik atta nun gogorra hotzakin, ta ni're bai. Oain solamente hotzak itten dit /itteit/ kalte bat... Graziyak kalefakziyuak-eta onak dazkaula, bestela...

-Eta han jateko ta zerbait eramango zendun ez?

- "Un bocadillo", sardin zaharrakin iña o.

-Sardin zaharrak?

-Sardin zaharrak, hoixe. Sardin zaharrak ez osuak e? Askotan hiru puska einda bat. Bakoitzantzako puska bat. Txokolatia gendunian, ontza kuadratu hoik, lau puxka launtzako. Ze uste dezu /ustezu/, gaizki hazita...

24. Gerra ostean, janari gutxi eta eskasa

- **Erref:** URN-001/035
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:56:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, oso gutxi eta gaizki jaten zuten. Etxean ez zuten egiten ogia. Artoa entregatu behar izaten zuten eta nola-hala moldatzen ziren artoa beraientzat lortzeko.</p>

25. Estraperloan oinarrizko jakiak erosten

- **Erref:** URN-001/036
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:56:03. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Estraperloan olio, ogi beltza, azukrea... erosten zuten. Emakumeak ibiltzen ziren jenero hura saltzen isilka. Behin, bere postuan isuna ordaindu behar izan zuen platanoen prezioa kartelean jarri ez izanagatik.</p>

26. Baserriko janaria, komuna eta komuneko papera

- **Erref:** URN-001/037
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 01:00:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua ez zitzaien gogorra egiten, huraxe bakarrik ezagutzen baitzuten. Lo egiteko, ohe bakoitzean bi lagunek egiten zuten lo. Sukaldean janariak nola prestatzen zituzten azaltzen du. Garai hartan janaria goxoagoa zen, egurrezko sua erabiltzen baitzuten. Bazkaltzeko, denek erretilu beretik jaten zuten eta bakoitzak bere zatia zuen. Komuna ukuilu gainean egoten zen. Ipurdia garbitzeko egunkariaren papera erabiltzen zuten. Etxean, Argia aldizkaria irakurtzen zuten.</p>

27. Ama josten trebea

- **Erref:** URN-001/038
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:00:38. **Bukatu:** 01:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Amak eskuz josten asko zekien. Ahizpari soinekoak egiten zizkion eta gauean berandura arte egoten zen josten. Argirik ez zuten etxean (kriseilua erabiltzen zuten) eta urik ere ez (errekara joan behar izaten zuten). Edateko iturriko ura ekartzen zuten.</p>

28. 7 urterekin ikasi arropa garbitzen

- **Erref:** URN-001/039
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:01:40. **Bukatu:** 01:03:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>7 urte zituenerako arropa garbitzen ikasi zuen. Ahizpa bat tifusarekin hil zitzaion eta beste bi kutsatu egin ziren. Sendatu bitartean, baserrian egon ziren eta inork ezin izaten zuen sartu. Garai hartan, amak behatza zauritu zuen eta ezin zuen errekara joan horregatik. Egoera horrela, Juanitak ikasi behar izan zuen arropa garbitzen.</p>

29. Arropa garbitzeko ohiturak

- **Erref:** URN-001/040
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:03:09. **Bukatu:** 01:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Arropa eskuz garbitzen zuten eta Lagarto xaboia erabiltzen zuten; lehen-lehen sutako hautsa erabiltzen zen. Arropa erreka buru gainean eramaten zuten. Arropa zintzilikatu egiten zuten gero alanbrean.</p>

30. Ur bila iturrira joateko alferkeria

- **Erref:** URN-001/041
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Edateko ura iturritik ekartzen zuten. Iturria erreka baino urrutiago zegoen eta ez zuten nahi izaten hara joan. Ura kristalezko botilatan ekartzen zuten. Anaiak behin ebakia egin zuen ur bila joan zenean; amak sendatu zuen sendabelarrei esker: inurri-belarra, besteak beste.</p>

Transkripzioa

-Edateko ura nundik ekartzen zan?

-Iturritik, iturria, bai. Erreka baiño urrutiyo gendun iturria. hara jun nahi ezik ibiltzen giñen. Eta txandan juten giñen ta hara jun nahi ezik ura ekartzea, baiño hara juten giñen. Eta askotan hara ez jutegatik errekakua igual. Udarán bai, udarán edan zeiken baiño negun ezin zeiken, izugarri hotza zan eta. Udarán tira baiño negun..., negun ezin zan.

-Nola ekartzen zenuten, marmitetan?

-Botilletan, botilletan. Marmitik ez gendun eta.

-Ez?

-Ez ba.

-Botillak kristalezkuak?

-Kristalezkuak, bai, bai. Egun batian nee anaiak gixajuak uretaa bialdu eta ebakiya in zun izugarriya hemen. Puxka kendu ziyon zeai. Bai, eta amak sendatu ziyon. Lehengu hoik bazekiya ze belarrak eta ze gauzak eta. Bazekizkien eta sendatu ziyon, baiño gixajuak min hartu zun.

-Eta zer belar erabiltzen zituen zure amak, berbena belarra eta holakuak?

-Berbenakin ni ez naiz goatzen baiño txingurri-belarra ta. Hoik, txingurri-belarra goatzen naiz. Txingurri belarra, ura ematen ziguten hola katarrazua edo hola gelditzen giñanian, ur hartatik edaten gendun. Eta sendatu itten giñen.

-Eta ur bila orduan egunero jun bihar izaten ziñaten?

-Bai, klaro, egunero bihar zan ura.

31. Gazta etxean egiten

- **Erref:** URN-001/044
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:10:56. **Bukatu:** 01:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Baserrian gazta nola egiten zuten azaltzen du: esnea epeltzen zuten, gatzagi puska bat ur epeletan sartuta egon ostean esnetara bota eta azkenik molde batean sartu. Batzuetan gosea pasatzen zuten.</p>

32. Norbait hiltzean eta jaiotzean, auzokoak elkartu

- **Erref:** URN-001/045
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:12:20. **Bukatu:** 01:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinismenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Norbait hiltzen zenean, iluntzean etxeetara joaten ziren arrosarioa errezatzerara. Gauean beti egoten zen norbait hildakoarekin gaubela egiten. Ume bat jaiotzen zenean atsolorrak izaten ziren: inguruko emakume guztiak biltzen ziren, merienda ematen zen eta irrintzika ibiltzen ziren; ahal zuenak oparia edo dirua eramaten zuen. Bataioa zenean ere merienda izaten zen, baina kalean. Bataiora ama ez zen joaten, aita eta aitajaun-amandreak baizik. Elizan sartzea egiteko, ama umearekin joaten zen kandela eskuan zuela.</p>

33. Lehengo mezak eta misioek sartutako beldurra

- **Erref:** URN-001/046
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:15:26. **Bukatu:** 01:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Lehen latinez ematen ziren mezak, apaizak bizkarra ematen zion jendeari meza eman bitartean... Garizuman misioak izaten ziren eta beldur handia sartzen zuten. Behin, misioak izan zirenean, Urrietako 7 neska joan ziren moja.</p>

34. Maistraren diziplina eta gurasoekiko errespetua

- **Erref:** URN-001/048
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:17:48. **Bukatu:** 01:19:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Lehen errazago jotzen zen: maistrek makila edukitzen zuten harekin jotzeko buruan, bizkarrean, eskuan... Berari ez zioten inoiz jo. Gurasoei lehen errespetu handia edukitzen zitzaien eta haiek esandakoa betetzen zen.</p>

35. Poxpolinak Kursaaen

- **Erref:** URN-001/054
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:23:31. **Bukatu:** 01:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Gerra aurretik poxpolina izan zen Juanita. Kursaaen ibili ziren ikasten bi maistrarekin. Maistra haiei ilea moztu zieten gerra garaian nazionalistak izateagatik. Gerra iritsi zenean, bertan behera geratu ziren klase haiek.</p>

Transkripzioa

-Ni gerra hasi baiño lehen ni pospoliña nitzen. Bueno, pospoliña nitzan, denborik ez nun izandu. Ez gendun denporik, gerra sartu zan eta. Bai, ni hemen Kursalian ibiltzen giñan. Ondo ai giñan ikasten baiño geo danak galdu zian eta kitto.

-Eta orduan nor zebillen pospoliñen kargu?

-Guk Urnitan bagiñun bi ahizpa modistak. Margarita eta bestia ez naiz goatzen. Margarita..., oso-oso euskaldunak zian. Hairi gerra-denboran illiak moztu ta dana in zizkaten. Bai, dana moztu illiak eta. Aceite ricino eman eta izugarrizko zeak. Oso nazionalistak zian ta haik zuen kargua ta haitako batekin etortzen giñan.

-Eta hona etortzen ziñaten?

-Donostira Kursalera.

-Urnietatik etortzen ziñaten?

-Bai, Kursalea.

-Dantzan ikastera?

-Bai.

-Eta pospolin jantzita?

-Bai. Politta zan hua, e, oso politta zan.

-Hori gerra hasi zanian bukatu.

-Dana, danak bukatu zian.

-Orduan zuk bazendun zaletasuna dantzarako eta kanturako.

-Hoixe. Bai, nei erakutsi izan bazidaten ikasiko nun. Nik neonek konprenditzen det oain nik baiño eskasauak ikasten due ta. Erakutsi ezkeo dana ikasten da. Guk ez degu izandu ikasteko moduik eta hoixe.

36. Ilunpetan ikusteko moduak: farola eta kriseilua

- **Erref:** URN-001/055
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:25:13. **Bukatu:** 01:27:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Goizean iluna zenean mezara joan behar izaten zutenean, farolak eramaten zituzten. Farola haiek nolakoak ziren azaltzen du. Etxerako, kriseilua erabiltzen zuten. Garai hartan ez zen sute askorik izaten. Ohera goiz joaten ziren, negu garaian zortziak aldera.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com